

SURBISAN GIZARTE LANGILE BAT HAUTATU ETA LANPOSTU BAT ERRELEBO-KONTRATU MODALITATEAN BETETZEKO DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehena. Xedea eta deialdi publikoa.

Oinarri hauen xedea da Surbisan Gizarte Langile lanposturako pertsona bat hautatu eta errelebo modalitatean lan-kontratua egiteko baldintzak ezartzea, Langileen Estatutuaren 12.7 artikuluan xedatutakoarekin bat eginez. Izan ere, egungo titularra ordezkatzeko luke, berau zati bateko erretiro egoeran baitago. Kontratu modalitate honi aplika dakizkiokeen arau-baldintzei atxikita egongo da kontratua.

Oinarri hauetan, lanpostua betetzeko pertsona baten hautapenerako eta errelebo-kontratu modalitatean lan-kontrataziorako baldintzak ezartzen dira; langile hori Bilboko Hiri Birgaikuntzaren kudeaketa lanetan aritzen den SURBISA udal enpresako langile-taldean sartuko da berehala.

Sarrera-probak gainditu baina, amaieran, bete beharreko lanpostura iristen ez diren hautagaiak bi urteko iraupena izango duen Lan-Poltsa batean sartuko dira Surbisaren eta Udalaren esparruan lanbide-profil honetan bete gabe dauden postuak betetzeko.

Deialdi hau web korporatiboan eta Hiribilduko egunkari hedatuenetan argitaratuko da, dagokion Elkargoari jakinaraziko zaio eta gaitasun, meritua eta berdintasun printzipioak errespetatuko ditu.

Bigarrena. Deitutako lanpostuaren baldintzak.

Lan-kontratazioa errelebo-kontratu gaietan Langileen Estatutuaren 12.7 artikuluan eta aplika daitezkeen Gizarte Segurantzaren arauetan xedatutakoarekin bat eginda burutuko da; hala ere, mugarik gabeko hautatze prozedura Oinarri hauei jarraituta egingo da.

Pertsona errelebularia Surbisako lan-taldean arduraldi osoan arituko da, hau da, lan-jardunaldiaren % 100ean, harik-eta zati bateko erretiroa hartu duen pertsona erretirorako legezko adinera (bi urte aurreikusten dira) iristen den arte, baldin-eta aurretiazko erretiroa eragiten duten ziorik ez bada edo erretirorako adina aldatu edo antzeko egoeraren bat gertatzen ez bada. Denbora tarte horretan, zati bateko erretiroa hartu duen pertsonarekin partekatuko ditu lanpostuaren zereginak. Eta errelebo-kontratuko modalitate hau amaitzen denean, hautatutako pertsonaren kontratazioa erregimen mugagabekoa izatera pasako da, eta jardunaldi osokoa eta erabateko arduraldikoa izango da.

Bai soldata bai gainerako lan-baldintzak enpresaren lan hitzarmenean ezarritakoak izango dira. Zehazki esanda, lanpostu honi dagokion urteko soldata gordina 45.874,64 €-koa da, 14 ordainsaritan banatuta; eta lan jardunaldia ordutegi zatituan egiten da neguan, eta lanaldi jarraituan udan.

Hirugarrena. Lanpostuaren funtzio eta ardurak.

Lanpostuaren ardurak

Surbisaren xede sozialari eta honen eskumenei dagokienez, deitutako lanbide kategoriakoak direnak.

Zeregin nagusiak

Zuzenki enpresaren zuzendaritza nagusiaren menpe, honako hauek izango lirateke, informazio bat ematearren, lanbide kategoria honetan buru beharreko zereginak, besteak beste:

- SURBISAren esku-hartze eremuetan edo eremu berriak izan daitezkeenetan **gizarte errealitatearen azterketa eta diagnosiak egitea**.
Esku-hartze eremu aitortuak izateko, hainbat gizarte- eta hirigintza-azterketatan laguntzea
- **Eremu bakoitzeko diziplina arteko lan-taldeetan parte-hartze koordinatua**, lurralde eta gizarte errealitate bakoitzean esku-hartze programak ezarri eta helburuak erdiesteko moduak landu, zabaldu eta lurraldeko eragileen arteko lankidetzat diseinatzeke.
- **Etxez etxeko bisitaldiak**, SURBISAko edota udaleko beste sail batzuetako teknikariek batera, eraikinaren egoera eta ahalmen ekonomiko eta soziala identifikatzeko, eta beharrezko obrak burutu edota gatazkak konpondu ahal izateko
- Kalteberatasun egoeran dauden eta bizi direneko etxebizitza edo eraikinetan egin beharreko obrei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenen finantza baliabideei buruzko **informazioa eta orientazio orokorra eta berezitua**, ez-ordaintzeagatik etxe galtzea saihesteko
- **Famili unitatearen balioespina eta diagnosia**, kalteberatasun edo gizarte-bazterkeria egoeretan etxebizitza defizita dagienean beharrezko esku-hartze plana zehazteko
- Segurtasun, osasungarritasun eta bizigarritasun zioengatik etxebizitza eta eraikina zaintzarekin lotutako betekizunak betetzeko zailtasun berezia dituzten egoiliarak **hauteman, lagundu eta akonpainadua eta gizarte-jarraipena egin**
- **Surbisaren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta eremu bakoitzeko gizarte-eragileen arteko jarduketa koordinatua**, ekonomi baliabide eskasak dituzten pertsona zaurgarrien bizitokiaren bizigarritasun, iriste erraztasun edota segurtasun baldintzak hobetzeko
- Gizarte Ekintzarekin, Gizarte-larrialdietako Udal Zerbitzuarekin (GLUZ), Herri Segurtasunarekin, Suhiltzaileekin eta **atxikitako gainerako eragileekiko koordinazioa**, Surbisaren jarduketa eta eskumeneko eremuetan, sute, erortze, leherketa edo istripuengatik uste gabeko larrialdi egoeretan atxikitako pertsonak artatzeko
- Jarduketa eremuetan, antolamendu, bizikidetzat, etxebizitza huts eta auzokideen harremanei buruzko **azterketak eta diagnosiak egitea**
- **Eremu bakoitzeko Gatazken Kudeaketa Taldeetan parte-hartze aktiboa**, gizarte-larrialdia sortzen duten gatazkak diagnostikatu eta tratatzeko, batez ere auzokideen erkidego eta espazio publikoetan
- Obrak burutzean parte-hartzen duten eragileen arteko gatazkak, eztabaida eta **ezadostasunetan bitartekotza lana**: auzokideen elkarte, auzokide partikularra, finka administrazioa, kontrata, teknikariak
- SURBISAko **diziplina arteko diagnosi eta koordinazioa**, obrak egitea eragozten duten auzokide arteko arazoan aurrean adostasunak errazteko: utzitako etxebizitzak, okupatuak, txirotasuna, eztabaidak, bizikidetzat gatazkak.

- Etxebizitza birgaitze, ostatu hartzeko eredu berri, bizikidetza, kohesio sozial, kultur dibertsitate eta gizarte ongizate gaietan **proiektu berritzaileetan parte hartu, garatu eta kudeatzea.**
- **Beste udal sail batzuekiko koordinazioa eta lankidetz**a hiri mailako hainbat programa eta egitasmotan (Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, Osasuna, Dibertsitatea, Hiri lagunkoia...) eta auzoetako plan estrategikoetan
- **Txostenak eta jarduera-memoriak egitea**
- Gizarte arloko funtzioak eta laguntza funtzional eta tekniko guztiak, Elkarreak eskatzen badizkio.

Laugarrena.- Lanpostua betetzeko hautagaien betekizunak.

Hautatze prozesuan onartuak izan eta, hala badagokio, parte hartzeko, hautagaiak honako betekizun orokor eta espezifiko hauek bete beharko ditu hautagaitzak aurkezteko epea amaitu aurretik, hautatze prozesuan zehar eta dagokion lan-kontratua formalizatzen den arte:

- Gizarte Laneko edo baliokide den graduako unibertsitate titulazio ofiziala eta homologagarria, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez lanbide arautuan aritzeko gaitasuna ematen diona.
- Espainiar nazionalitatea, edo Europar Batasunaren kide diren Estatuetakoa batekoa, izatea. Europarrak ez diren atzerritarren kasuan, Espainian egoitza baimena egiaztatu beharko dute eta kontratazio honetarako administrazio-baimena eduki beharko dute.
- Adinez nagusia izatea eta lanpostuko zereginak betetzeko oztopo izan daitezkeen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea, minusbaliatuen gizarte integrazioari buruzko 13/1982 Legean xedatutakoaren kaltetan izan gabe.
- Herri Administrazioekin kontratazioa egiteko aurreikusitako bateraezintasun edota ezgaitasun balizko batean ere erorita ez egotea eta diziplina espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez egotea ez eta funtzio publikoak egikaritzeko ezgaitua egotea ere.
- Berehala hasiko da lanean, gehienez 15 egun natural igarota hautapenaren idatzizko jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita (2024ko abenduaren 1erako aurreikusten da lanean hastea).

Hautatua izan den pertsonak, lan-kontratua sinatzeko eta lanean hasteko finkatutako data baino lehen, LANBIDEn izena emanda eta enplegu-eskatzaile gisa agertu behar du. Egitate hori kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko da.

Bosgarrena. Eskaera-orriak aurkeztea.

Hautatze prozesuan parte hartzeko eskariak SURBISAKo bulegoetan (Erronda kaleko 6.a) emango den ereduari jarraituko diote; elkartearen web orrian ere eskuragarri egongo da: www.surbisa.eus

Eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NAN fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioaren kopia
- Curriculum Vitae
- Merituak eta lan-eskarmentua justifikatzen dituzten dokumentuak; eta zerbitzua eman deneko data-bitartea adieraziko da, bai eta guztira lan egin deneko denbora osoa; horretarako, lan-ibilbidearen egiaztagiria edota enpresena edo zehatz-mehatz lanpostua bete deneko iraupena, kategoria eta funtzioak justifikatzen duen beste agiriren bat.
- Prestakuntza, ikastaro edo beste ezagupen edo hizkuntza ezaguerekin lotutako merituen justifikazio dokumentala: bertan agertuko da prestakuntza erakundearen edo egiaztagiria igorri duenaren izendapena eta ikastaroaren ordu kopurua. Justifikazioa, nahitaez, ikastaroan parte hartu izanaren egiaztagiri bidez egin beharko da.

Eskaera-orriak eta berorri lotutako dokumentazioa, behar bezala beteta, SURBISAREN Erregistroan (Erronda kalea 6.a) aurkeztuko da, edo surbisa@surb.bilbao.eus helbidearen bitartez, **2024ko irailaren 27ko eguerdiko ordu bata (13:00) arte.**

Hautagaiak euren eskaeretan jasota utzi dituzten datuetara lotuta geratuko dira.

Seigarrena.- Hautagaiak onartzea.

Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileko presidentek onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratu egingo du SURBISAREN web orrian.

Zerrenda horretan baztertu gisa agertzen diren hautagaiak bi egun (2) baliouduneko epea edukiko dute, Surbisaren web orrian argitaratzen denetik zenbatzen hasita, baztertzea arrazoitu duten akats edo omisioak konpontzeko, bai eta baztertua izateko arrazoi izan direnen aurkako erreklamazioak aurkezteko. Argitalpen hori 2024ko urriaren 7ko astean egingo dela aurreikusten da.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat hartuko da erreklamaziorik aurkeztu ezenean. Erreklamazioak egonez gero, aintzat hartuko dira edo ez dira aintzat hartuko ebazpen batean, zeinen bidez behin betiko zerrenda onetsiko den. Hau aurrekoaren modu berean argitaratuko da.

Behin betiko zerrenda onestearekin batera, proba teoriko-praktikoen fasearen lehenengo azterketaren eguna, ordua eta lekua argitaratuko da; 2024ko urriaren bigarren hamabostaldirako dago aurreikusita azterketa hori.

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak SURBISAren web orrian argitaratuta egingo dira, bai eta posta elektronikoz ere, hala dagokionean.

Zazpigarrena.-- Epaimahai Kalifikatzailea.

Frogen Epaimahai Kalifikatzailea honela egongo da osatuta:

- Presidentea: Elkarteko Presidentea edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Elkartearen Administrazio Arduraduna edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Elkarteko Gizarte Langilea
- Langileen ordezkaria.
- Idazkaria: SURBISAKo aholkulari juridikoa edo honek eskuordetutako pertsona bat.

Frogetan, egoki irizten zaionean, Epaimahai Kalifikatzaileak adituen laguntza eskatu ahalako du erabilitako hainbat gaitan erabakitzeke garaian.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du eta beronen objektibotasuna bermatzeaz arduratuko da. Era berean, antolamendu juridikoarekin bat eginez, Oinarriak aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak argituko ditu eta hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu prozesuaren garapenean ordenari eusteko; horretarako, bertan aurreikusi gabeko balizkoekin lotuta, dagozkion irizpideak ezarriko ditu.

Idazkari lanak betetzen dituenak hautatze prozesuan burututako jarduera eta frogan Akta beteko du; bertan, izendapenen proposamena eta ordezkoren lehentasun ordena eta Lan Poltsa osatzen dutenak jasota geratuko dira, Surbisako Presidente Eraginkorrek onetsi dezan. Aktaren edukia eta kontratazio proposamena, behin onetsitakoan, Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio.

Zortzigarrena.- Hautatze prozesua.

Lanpostuaren deialdi publikoak hautagaien gaitasuna egiaztatzea eskatuko du; beraz, hautapen sistema Lehiaketa-oposiziokoa izango da.

Prozesuaren gehieneko guztizko puntuazioa **50 puntukoa izango da**: hautagaiak proba bakoitzean lortutako puntuak batuketa. Gainera, hautagaiak proba baztertzailerak gaindituta izan beharko ditu, Oinarri hauetan dagokion atalean ezarritakoari jarraituz.

Hautagaiak SURBISAren web-orriaren bidez izango dira deituak; baldin-eta probak egiteko adierazitako leku, egun eta orduan agertzen ez badira, nahiz eta ezinbestez izan, hautatze prozesutik kanporatuak izango dira behin-betiko.

Hautatze prozesua hiru fasetan egituratuko da:

A) Ezagupenak balioesteko fasea (gehienez, 30 puntu): Nahitaezko proba teoriko-praktiko baztertzailea; honela egongo da osatuta:

- Lehenengo ariketa: Test moduko galderak dituen azterketa, lanpostuko funtzioekin lotutako ezagupenak eta hirugarren oinarrian deskribatutako eta I. eranskineko gai-zerrendari dagozkion zereginen garapen egokia egiaztatzeko.

Proba hori baztertzailea izango da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

- Bigarren ariketa: 2 kasu praktikoren ebazpena, bete beharreko lanpostuarekin eta hirugarren oinarrian deskribatutako eta I. eranskinari dagokion gai-zerrendako zereginen garapenarekin lotutako balizkoei buruzkoak (0 puntutatik 10era, horietako bakoitzean).

Proba hori baztertzailea izango da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira kasu praktikoko bakoitzean.

Fase honetako probak egun berean burutu ahalko dira eta 3 ordu inguruko iraupena izango dute. Kasu praktikokoak ebazteko, hautagaiak egoki irizten dituzten eta aldean ekarri dituzten legezko testuak erabili ahalko dituzte.

Balioetsiko direnak: ezagupen espezifikoak, araudiaren aplikazio egokia, sistematika, adierazpenaren gaitasuna eta argitasuna, gaitasun kritikoa eta hautatzaileak erakutsitako heldutasun maila.

B) Merituan balioesteko fasea (**gehienez, 15 puntu**)

B.1. Lan Eskarmentua eta Ikasketak

Proba teoriko-praktikoen fasea gainditzeko hautagaiak merituen balioespen fasean sartuko dira. Meritu horiek epaimahai kalifikatzaileak aztertuko ditu, beti-ere horretarako aurkeztutako eskarian alegatuak eta behar bezala egiaztatuak izan badira.

Balioestekoak diren merituen hauek izango dira:

- a) Betetzekoa den lanpostuko eginkizun berberetan edo antzekoetan duen lan eskarmentua (**gehienez 6 puntu**).
 - a. 0,25 puntu, Birgaitzeko Hirigintza Sozietateetan edota antzeko udal erakundeetan lanean jardundako hilabete oso bakoitzeko
 - b. 0,15 puntu, Administrazio Publikoan lan egindako hilabete bakoitzeko
 - c. 0,01 puntu, hirugarren sektoreko erakunde edo enpresa pribatuan lan egindako hilabete bakoitzeko.

Azpi-atal bakoitzeko egunen batuketan hilabete gisa konputatuko da baldin-eta batuketak 30 ematen badu. Denbora epeak, hala badagokio, eskaerak egiteko adierazitako azken egunera arte luzatu ahalko dira.

Azpi-atal bakoitzean burututako lana justifikatzeko, hautagaiak burututako zereginak zein diren zehazteko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute enpresa bakoitzaren Zerbitzuen Egiaztagiriri edota Enpresa Ziurtagiriri bidez edota

burututako lanaren nolakotasuna argi adierazten duen lan-kontratuaren kopia edo dokumentu bidez.

- b) Prestakuntza osagarria, deitutako lanpostuaren jarduerarekin bitartekotzarekin edo bide baketsu bidez gatazkak konpontzearekin, berdintasunarekin, parte-hartze prozesuekin eta antzekoekin zuzenki lotura duten ikastaroen bitartez lortua. **(gehienez, 3,5 puntu):**
- 10etik gora orduko iraupeneko ikastaroak; bakoitzak 0,25 puntu; gehienez, puntu 1.
 - Gradu-oste edo master gehiago: 2,5 puntu, bakoitzeko.

Unibertsitateak edo Ikastetxe Ofizial batek egiaztatutako titulazio ofizialak eta eskariak aurkezteko mugaeguna baino lehen lortutakoak baino ez dira ebaluatuko.

B.2. Hizkuntzak eta Beste ezagupen batzuk

- c) Gaztelera ez den beste hizkuntza batzuen ezagutza **(gehienez, 5 puntu).**
- Euskarazko C1 agiria edo baliokidea: 3 puntu
 - Euskarazko B2 agiria edo baliokidea: 2 puntu
 - Beste hizkuntza batzuetako B2 agiria edo baliokidea: Puntu 1
 - Beste hizkuntza batzuetako B1 agiria: 0,5 puntu

Erakunde ofizialek egiaztatutako eta eskaria aurkezteko mugaegunaren aurretik lortutako hizkuntza egiaztagirak baino ez dira balioetsiko.

- d) Informatika erremintetan ezagutza egiaztatua: datu base eta Excel programetan maila aurreratua, power point aurkezpenak edo antzekoak **(gehienez, 0,5 puntu).** 0,10 puntu emango zaio aipatutako tresna bakoitzeko.

C) Elkarrizketa fasea **(gehienez, 5 puntu):**

Lehenengo fasea gaindituta ondoen puntuatutako 5en artean geratu direnei aurrez aurreko elkarrizketa egingo zaie. Elkarrizketa hori lan postuarekin lotutako lan eskarmentuari eta eskatutako ezagupenei buruzkoa izango da, eta Surbisan bete beharreko lanpostura ondoen egokitzen den pertsona kontratatu ahal izatea izango da xedea.

Hautagaia lanposturako egokia den jakitea izango da xedea: talde-lanerako gaitasuna, antolamendu gaitasuna, Surbisako taldearekiko eta komunitatearekiko konpromisoa hartuko da kontuan, bai eta bere ikuspegi proaktiboa eta berritzailea ere.

Proba hau baztertzaila izango da 2,5 puntu lortzen ez dituztenentzat.

Bederatzigarrena.- Ariketen kalifikazioa eta emaitzen zerrenda.

Izaera baztertzailera duten ariketetako bakoitza amaitzean, Epaimahai Kalifikatzaileak web orrian (www.bilbao.eus/surbisa) argitaratuko du gainditu duten hautagaien zerrenda.

2 egun baliouduneko epea emango da azalpenak edo dena-delakoa eskatzeko.

Proba guztiak amaituta, Epaimahaiak proba guztiak gainditu dituzten hautagaien zerrenda argitaratuko du lortutako guztizko puntuazioaren araberrako ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak eta amaierako puntuazioa ere adierazita etorriko da.

Behin betiko sailkapen ordena hiru faseetan lortutako puntuazioen batura izango da. Hautapen prozesuaren amaierako kalifikazioak zehaztuko du hautagaien lehentasun-ordena.

Puntuazioan berdinketa egonez gero, ondoren zehazten diren irizpideei begiratuko zaie, eta lehentasun kasuistiko alderagarriko ordena honetan:

- a) Proba teoriko-praktikoen fasean puntuazio handiena lortua izatea
- b) Bitartekaritzan lan-eskarmentuaren balioespenean puntuazio handiena lortua izana.
- c) Bitartekaritza eta gatazken konponketan edo bizikidetzan sustapenean duen prestakuntzaren balioespenean puntuazio handiena lortu izana.

Hautagaiak, proba guztiak gaindituta ere, amaieran lan-posturako hautatuak izan ez direnean, Surbisaren eta, hala badagokio, udal mailako lanbide profil honetako lanpostu-hutsak betetzeko Lan Poltsa batean sartuko dira behin betiko kalifikazioak argitaratzen direnetik bi urteko epean irauteko.

Hamargarrena. Dokumentazioa aurkeztea.

Proposatutako hautagaiak luzeen jota 10 egun baliouduneko epean, behin betiko sailkapen ordena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, hautatze prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztuko ditu.

Proposatutako hautagaiak aurtengo abenduan lan egiteko prest egon beharko du. Data horren aurretik, dagokion kontratua egiteko beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko du Surbisako bulegoetan.

Baldin-eta proposatutako hautagaiak eskainitako lanpostuari uko egingo balio edo deialdian eskatutako edo errelebo-kontratua formalizatzeko beharrezko betekizunak egiaztatu ezingo balitu, ezingo da kontratatua izan, bere jarduketa guztiek ez lukete eraginik izango eta bere kontrataziorako lagungarri izan zitezkeen eskubide guztiak galduko lituzke, hasierako eskarian gezurretan ibiltzeagatik izan lezakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe. Balizko horretan, kontratazio proposamena egingo da ariketa guztiak gaindituta izan eta, amaierako puntuazioaren araberrako ordenari begiratu, hurrengo lekuan legokeen pertsonaren edo pertsonen alde, eta hori guztia eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla aurretik egiaztatuta. Era berean jokatuko da kontratatutako hautagaiak aurrean finkatutako probaldia gainditzan ez badu.

Hamaikagarrena. Kontratazioa eta probaldia.-

Organo eskudunak Epaimahai kalifikatzaileak proposatutako hautagaiaren kontratazioa formalizatuko du, behin aurreko oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkeztutakoan.

Kontratututako pertsonak hiru hilabeteko probaldia bete beharko du.

Hamabigarrena. Datuen inguruko baimena eta babes

Hautagaiek deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendurako baimena ematen dute, gai honetan indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat eginez.

Emandako informazioaren tratamendua, azterketa eta artxibatzea datuen babesari buruzko legedia beteta egingo da, eta horren helburu bakarra hautatze prozesu honen burutzapena izango da, interesatuak eskaera-inprimakia sinatzean eman duen adostasunarekin.

Ez da inolako datu-emakidarik egingo, legez ezarritako epean gordeko dira eta legeak ezarri bezala suntsituko dira, hori guztia “langileen aukeraketa” izeneko fitxategian.

Bilbon, 2024ko irailaren 13an

I. ERANSKINA. LANPOSTUAN APLIKATZEKOAK DIREN GAI ORIENTAGARRIAK

I. blokea. Etxebizitzaren birgaitze soziala.

1. gaia.- 1978ko Espainiar Konstituzioa: Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Euskadiko Autonomi Estatutua: Euskadiren eskumenak: eskusiboak, lege garapen eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.
3. gaia. Bilboko Udaleko Sailak eta Udal Elkarteak. Hiri Berroneratze Saila. SURBISA
4. gaia. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko AGINDUA, etxebizitza eta eraikinetan birgaitzea, iriste erraztasuna eta energi efizientzia gaietan babesgarriak diren jarduketetarako finantza neurriei buruzkoa.
5. gaia. Bilbon, Surbisaren ardurapeko eremuetako bizitoki eraikinak eta etxebizitzak birgaitu eta hobetzeko diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak, 2024-2027 urteetarako.
6. gaia. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: 1 - 34 artikulua.
7. gaia. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: I. Eranskina, A).
8. gaia. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: I. Eranskina, B), C) eta D).
9. gaia. 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.
10. gaia. 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, jabetza horizontalari buruzkoa.
11. gaia. 80/2022 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomi Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxiengo bizigarritasun baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.
12. gaia. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, etxebizitzari buruzkoa.
13. gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko: Arautzea eta definizioak. Datuen babeserako printzipioak. Pertsonen eskubideak.
14. gaia. Surbisaren laguntza programa hauen oinarri arautzaileak: “Ierro berdea”, “arkitektura oztupoak kentzea” eta “egitura konponketak” izeneko programen oinarri arautzaileak, alegia.
15. gaia. Emakumeen eta Gizonen Arteko berdintasunerako V Udal Plana.

16. gaia. Zubirik 2021-2025 Plana, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala.

II. blokea Azterketak, analisiak eta diagnosiak.

17. gaia. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa.

18. gaia. 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa (2011/02/9 EAO)

19. gaia. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea. (1 -32 artikulua).

20. gaia. Tresna tekniko komunak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa (1-4 artikulua).

21. gaia. 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria balioesteko Tresna onartzen duena (1-6 orr.).

22. gaia. Hiri Kalteberatasun edo Zaurgarritasuneko Oinarrizko Adierazleak. Hiri Kalteberatasuneko Oinarrizko Adierazleei erreparatuta, Kalteberatasuna Identifikatzea.

23. gaia. LurData eta GeoEuskadi. Euskadiko Autonomi Erkidegoko GIS. bitarteko estatistika hedapena.

24. gaia. Bilboko gizarte eta ekonomi adierazleak. Bilboko gizarte eta ekonomi errealitatea.

25. gaia. 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.

26. gaia. Gizarte diagnosis: prozedura eta ebaluazioa.

III. blokea Gizarte esku-hartzea kolektibo kalteberetan.

27. gaia. Gizarte Laneko teknikak: elkarrizketa eta etxeko bisita.

28. gaia. Gizarte Laneko tresnak: historia soziala, fitxa soziala, txosten soziala, beste batzuk.

29. gaia. Esku-hartze komunitarioa. Beharrianak hautematea, helburuak, metodologia, teknika eta erremintak eta esku-hartze mailak.

30. gaia. Etika, gizarte esku-hartzean. Printzipio eta balioak. Intimitatea, konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala. Gatazka etikoak eta etika komiteak, gizarte esku-hartzean. Gizarte Lanaren Kode Deontologikoa (2012).

31. gaia. Esku-hartzeko prozesu teknikoa. Harrera eta ikerketa. Hasierako ebaluazioa. Erabakia hartzea. Babeserako banakako plana.

32. gaia. Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena (1): xedapen orokorrak eta gizarte-inklusio gaietan artatze espezializatuarekin lotutako programak eta horri lotutako zerbitzuak; gizarte bazterkeria aitortzeko prozedura (Atariko Titulua; I. Titulua: 1etik 16rako artikulua, biak barne; eta II. Titulua, 17tik 26rako artikulua, biak barne).

33. gaia. Bilboko gizarte zerbitzuen katalogoa. Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2008 legeko Prestazio eta zerbitzuen zorroan ezarritako Lehen mailako artatzeko gizarte zerbitzuen garapena.

34. gaia. 2024 urteari dagozkion Gizarte Larrialdietarako Laguntzen tramitaziorako Gizarte Ekintza Sailaren jardunaren irizpide orokorrak, 2024ko ekainaren 19an Hiribilduko Gobernu Batzordearen Akordioaz onetsitakoak.

35. gaia. Bilbao Adinekoekin Adeitsua den Hiria III Plana.

36. gaia. Ezgaitasuna duten pertsonen kolektiborako diru-laguntza banakatuak eta pentsio espezifikoak. Gizatek programa. Kotizaziopekoak ez diren pentsioak eta kargurako seme/alabagatiko famili prestazioa.

IV. blokea Bitartekotza, bizikidetzaren sustatzea eta gatazka konpontzea.

37. gaia. Bitartekotza komunitarioa. Gizarte gatazkei aurre egiteko estrategiak. Ekintza komunitarioa, gatazkari aurre hartu eta esku-hartzeko estrategia gisa.

38. gaia. Bitartekotza prozesuaren faseak. Arakatze fasean bitartekariak dituen estrategiak. Gatazka lantzeko fasean bitartekariak dituen estrategiak.

39. gaia. Baterako saioaren prestakuntza. Bitartekotza prozesuan bitartekariak dituen analisi-elementuak eta estrategiak, Harvard ereduaren arabera; bitartekotza prozesuan bitartekariak dituen analisi eta estrategiak, bitartekaritzako eredu eraldatzailearen arabera; bitartekotza prozesuan bitartekariak dituen analisi eta estrategiak, bitartekotzako eredu narratzaile zirkularraren arabera.

40. gaia. Bitartekotzaren eredu errestitatiboa. Bideratzailearen ikuspuntua eta esku-hartze estrategiak.

41. gaia. Jarduera errestitatitzaileak. Zirkuluak sortzea eta bideratzailearen rola.

42. gaia. Bitartekotza praxisa, Euskal Autonomi Erkidegoan. Arartekoaren ez-ohiko txostena.

43. gaia. 2007ko urriaren 24ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, jabetza horizontalen eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko funtzioak arautzen dituena. BIZILAGUN.

44. gaia. Bilboko Bizikidetzaren Behatokia. Bilboko Balioen Agiria, Segurtasunaren aldeko Ituna, Bilbo Kultur arteko Uria Plana eta Udalaren gainerako konpromiso eta udal plangintzak.

45. gaia. Gizarte Lanak Bitartekotzari emandako balio erantsia. Gizarte langilea bitartekotzaren ekintza profesionalean.